

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko abenduaren 18a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Iruñea • Eguberri usaina dario hiriarri.

Iker Flores • «Kategoriari beldurra ez baino errespetu handia diot».

Ardo nafarren gorakada



• MIKEL SAIZ

Nafarroako izendapena duen ardoak gero eta harrera onagoa du. Azken urteetan salmentak gora egin dute nabarmen eta aurten gorakada are nabariagoa da. Oraindik urtea ez da bukatu, eta jadanik 1997an baino %14a gehiago saldu da. Gainera, nekazariei mahatsa batez beste %10 gehiago oradaindu zaie.

Larraun • Nafarroako paisaiaren ikuspenak

Alfredo Diaz de Cerioren erakusketa zabalik da Gustavo de Maeztu museoan

Nafarroako paisaiaren ikuspenak izenburupean urtetik urtera margo erakusketa zabaldu ohi du Gustavo de Maeztu museoak, margolari ezberdinek herrialdearen inguruan duten ikuspegia ezagutzera emateko.



Goian Alfredo Diaz de Cerioren *Urlo* margoa eta, eskuinean egile beraren *Iruñeko murrak* margoa
• DIAZ DE CERIO

Beti berdina izatea, eta bertetik, Lizarrako partikular batek egiten duen eskaintza txalagarria. Inaki Astigarragak urtero margo bat erosten du 200.000 pezetaren truke (8.000 libera), eta museoari oparitzen dio. Beti ere, pinakotekaren ondasunak handitzeko asmoz. Aurten Diaz de Cerioren *Urlo* izeneko margoa eman du. Bertan ur geldo baten irudia ageri da eta 26x68ko taula baten gainean egindako oleoa da. Bilduma honetan dagoeneko bertze borts margolarien lanak daude, aurretik erakusketan parte hartu duten: Jesus Lasterra, Jose Maria Asuncion, Ana Mari Marin eta Luis Garrido margolariak, hain zuzen ere.

Alfredo Diaz de Cerio ez zuen orain arte Lizarran erakusketarik egin. Orotara Mendabiako artistaren 14 margolan ikus daitezke eskegita urtarilaren 31ra arte museoaren ormetan. Erakusketak artistak azkeneko bi urteetan egin duen laneren zati nabarmena bildu du. Haren lana biziki errealista moduan definitu bada ere, egilearen

ustez ez da horrela. Izan ere, bere hitzetan kontzeptu hori zailantzarria da oso. «Paisaia ikustera koan emozioa sentitzen dut. Baina paisai hori mihisera eramaten duan momentuan errobotaren gisa aritzen naiz, emozioaren saretan batera erori gabe», dio. Eta zera gaineratu du: «Nire lanean ez du islatu nahi errealtatean ikusten dudana gauza bera, ez dut ikuslearen emozioa sortarazi nahi. Buraurekin margotzen dut eta orokorrean nire laneak begirada hotza eta bortitza ageri dute».

Bertetik, Gustavo de Maeztu museoak beste erakusketa bat

bildu du egunotan. Juan R. Sukibideren *Armamiaren zetnua* izeneko lan bilduma da ikus daitekeena. Orotara artistaren borts arte lan ikus daitezke: bi margo, kolorez jantzitako ehun luzea eta eskultura bi.

→ Kristina Berasain

Lizarra
•
Bihar aukeratuko da urteko lizarrarra

LIZARRAN ARITZEN DIREN komunikabideek aukeratu dute bihar, aurtengo lizarrarra. Hautagaial borts dira: Sagrario Larralde misiolaria, Patxi Ruiz pilotaria, Pablo Hermoso de Mendoza errejoneatzailea, Jon Lopez Garnika dantzaria eta Mikel Andueza saxojoela.

Ekitaldiaren helburu nagusia herritarren batek haren beharrean egin duen eta egiten ari den lana saritzea da. Luis Tobes enpresaria da ekitaldi bereziaren bultzatzailea. «Hainbat pertsonak bere jardunean ongi aritzeak Lizarrako hiriarren izena hemendik kanpo ezagutzera dakar. Ekimen honen bidez lagun hauek egiten dutenagatik nabarmentzea eta omentzea lortu nahi da», azaltzen du Lizarrako enpresario honek.

Urteko lizarrararen ekitaldia duela zortzi urte hasi zen. Eta urte hauetan Lizarraren izena ezagutzera eman duten hainbat lagunek jaso du urteko lizarrararen saria. Hauek da aurtengo lizarrarak osatuko duen zerrendako lizarrarak: Pablo Hermoso de Mendoza errejoneatzaileak, Patxi Mangado arkitektoak, Alfredo Balerdi pilotariak, Antonio Roa eta Francisco Beruete Santiagoko Bideko Lagunen Elkarteko presidentek, Adolfo Eraso geologoak, Juan Satrustegi idazleak eta Javier Etxeberria txirrindulariak eta Javier Urria Madrileko adin txiki-koen herri defendatzaileak.

→ Kristina Berasain

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Aurrez aurre ikusi dut garbi, hiltzera kondanata dauden hasperen garratzak entzuteko aukera eman didate, tirokatuen azken garraxiak airea urratzen sumatu ditut. Fusilaren atzetik hiltzaile krudelen gorrotoak eta haien artean egotera beharturiko gixajoen dardarak plaza erdiko zuhaitzen enborretan itsatsirik iraun dute.

Aurrekoen kontakizunek halakoak marrazten zituzten nire haurtzaroko bizitza-ikasketan. Banekien errealtate gordina zirela. Arbasoek jasotakoa ez zegoen zalantzan jartzetik. Ozenki esan ez zitekeen egia zen gainera,

soilik etxe sukaldeko zoko beroetan zabaltzekoa.

Bartzelonako San Felip Neri plazan ez dago ordeza, kontalaririk eta ez da behar. Bertako harriek ematen digute hantxe gertatutako sarraskien testigantza.

Faxistek Catalunyako hiriburua hartu zutenean egindako hilketa masiboen arrastoak harri mutuetan geratu dira betirako. Elizaren pareta balek utzitako zuloz josirik dago bi metroko altueraraino. Bala galduek edo agian hiltzerik nahi ez zutenek botatutako tiroek bere zauriak utzi dituzte harrian hortik gora ere.

Bainan handiagoa zen gorrotoa nunbait gizakitainako altueran desagertu dira elizako lehen lerroko harriak, paretaren kontra jarritako gizon emakumeen kontrako erasoak hainbeste eta hain bortitzak izanik.

Odola lehortu zen laister bainan oroimen kolektiboan ez dira han suertaturikoak ahanzi eta harriak gertakizun larri haien lekuko dira gaur egun ere 60 urte beranduago.

Harrien testigantzak erakusten digunez gizakiaren lan onuragarriek luze iraun dezaketen bezalaxe ez dira errez ezabatzen batzuren basakeriak eta besteen nekeak.

Sakana

Sakanako VII.
Kirol Astea bihar
bukatu da

SAKANAKO MANKOMUNITATEKO Kirol Zerbitzuak eskualdeko zein herrialdeko hainbat erakunde eta talderekin batera, aurtengoan ere kirol astea antolatu da. Helburua Sakanako hainbat kirolariren eta kirol taldeen lana onartzeaz gain, talde eta kirolari horiek urtean zehar egindako lana ikustea da. Aurtengoan Kirol astearen guneak Urdian eta Lakuntzako herriak izan dira. Assez bi herriotan izan diren kirolaren inguruko mahainguruetaz gain, bertako udaletxetan kirolari buruzko argazki zaharren erakusketa ikusteko parada izan dute bertara hurbildutakoek. Dena den, oraindik ere kirol astea martxan da eta gaur txirrindularitzari buruzko eztabaidai zanen da arratsaldeko 8:00etan Urdiango Udaletxean. Bertan eztabaidan ariko dira: Igor Flores eta Iker Flores Euskadi taldeko txirrindulariak, Abraham Olano Once taldekoa, Txomin Perurena eta Jose Luis Arrieta Banesto taldekoa eta Angel Arritea Kaikukoa. Dudarik gabe, biharkoa izanen da Sakanako VII. Kirol Astearen egunik garrantzitsuenak. Biharkoan hainbat kirol ekitaldi ikusteaz gain, eskualdeko hainbat kirolari eta talde sariak jasoko dituzte. Egitarauari dagokionez, bihar 10:00etan Iruntzango eta Lakuntzako pilotalekuan Burundesa-Alsa sari nagusia jokatuko da, Sakanako XI. Pilota Txapelketaren aurrefinalak. Arratsaldeko 6:30etan, berriz, Sakanako IX Pala Txapelketaren finalak ikusteko aukera izanen da Olaztik pilotalekuan. Urdiango pilotalekuan, aldiz, arratsaldeko 7:30etan greko-erromatar borroka ikusi ahal izanen da.

Kirol asteari amaiera emateko



• Iruñea •

Badator Eguberria

Beste toki askotan bezala, Iruñean ere antzematen da Eguberria badatorrela. Kaletako argiak, dendetako eskaintzak, Olentzerorako prestaketak... Horietaz landa, bada urtero-urtero errepikatzen den ohitura, jaiotzak paratzekoarena, alegia. Argazkian Iruñeko Jaiotzegileen Elkarteak Antsoleaga karrikan duen egoitzan kokatu duen jaiotza berezia ageri da. Jaiotza Kontuen Ganbararen egoitza bera da, tamaina txikian, eta XIII. mendeko etxea ez ezik, barruko patioa ere ikus daiteke. Eguberriak pasa arte jaiotza ikusgai dago 8:30etatik 15:00ak arteko ordutegian.

Lakuntzako Pertza Elkarteak aukeratu da. Berta, 22:00etan afora egingen da eta Sakanako kirolaririk hoberenei sari banaketa eskainiko zaie. Aurtengoan sari-dunak ondokoak dira: Iker Flores eta Virginia Etxabarri txirrindulariak, Koldo Mendilize pilotaria, Txaro Latiegi karateka, MRA Xotako futbol taldea eta euskara bultzatu duten Sakanako soka-tira taldea osatzen duten Arbizuko neskak. Horietaz gain, aipamen berezia izanen dute eskualdeko pilota eskolek: Olazti, Altsasu, Etxerri-Aranatz, Arbizu, Arakil-Uharte eta Irurtzun, hain zuzen ere. Aipamen berezia ere jasoko dute baita Lagun Artea taldeak eta Kike Elizalde Altsasuko erremontistak.

→ Amaia Mundiñano

Lekunberri

Lola Mayok
jasoko du Angel
Urritia saria

ANGEL URRUTIA HANDIA LEKUNBERRIN jaio zela, eta herritarrak oso harro dira, aspaldian, idazle handiaren izena aipatzerakoan. Duela hiru urte, olerkaria omenduko lukeen olerki lehia-keta bat antolatzea bururatu zitzaion Lekunberriko Udaletxeari, Mitxauseña Kultur Etxearen ekimenez. Duela bi urte, Javier Velaza kastejondarrak irabazi zuen saria, eta iaz, berriz, Alakanteko Aurelio Arne-

→ Urko Aristi

dok. Aurtengo, oster, Lola Mayo madrildarrak eraman du.

Kazetari lanetan aritzen da Lola Mayo, eta epaimahaikoen ustez, hori nabari da bere lanean. *Perfil de abordaje* da saritutako liburuaren izena, eta Mitxauseñeko Inma Etxarriren ustez, «bertan bildutako olerki guztiak estilo motza eta azkarrekoak dira, zinema gidoi baten antzekoa osatuz». Igandean emango zaio saria olerkari madrildarrari, Lekunberriko Ayes-taran hotelean 12:30etatik aurrera. Lanik argitaratugabeko 40 olerkari aurkeztu dira lehia-ketara. Orain, ordea, sari honi esker, Lola Mayok bere lehen lana argitaratu ahal izan du, *Perfil de abordaje*, hain zuzen.



Urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Administrazioa
erderaz, arren

Lehengoan, ohi dudan bezala, artikulua entregatzera Iruñeko bulegora hurbildu eta Zaldi Eroa marrazkilariarekin topo egin nuen. Bistaz ezaguna nuen eta halaxe esan nion. Gauza berbera erantzun zidan berak. Irtezerakoan kafea hartzera abiatu ginan elkarrekin. Euskaldunak izanik sormen lanetaz hitz egin genuen, noski. Nik marrazkilariren lana goraiatu eta gauza izugarri zaila iruditzen zaidala esan nion. Berak, aldiz, zirriborroak egitea inongo meriturik ez dela eta artikulua egileak miresten dituela erantzun zidan. Saiatu nintzen bere marrazki zehatz batetaz oroitzen bainan ezin izan nuen. Erabaki nuen, beraz, orokorrean aipamen bat egitea eta nafarkariko komiki tirak oso onak iruditzen zaidakidala esan nion, nahiz eta oso gutxitan irakurri. Berak, umilki, «beno, pfff...» edo horrelako zer edo zer marmartu eta nire artikulua ere oso gustoko zituela esan zidan. Seguro nago nire lan zehatz batetaz ea oroitzen ote zen ahaleginetan zebilela. Egoerak ukitu deseroso bat zuten. Euskaldunok maiz pairatzen dugun egoera da hau. Kaletik euskaldun bat aurkitu ezker ea azkenaldi hontan bere artikulua, liburu, olerki, bertso, irratisaio, dantzaldi edo dena delakoa irakurri, ikusi edo entzun duzun oroitu behar duzu. Eta horrela izanez gero aipamen txiki bat egin behar duzu ongi geratzearen. Eta benetan zaila da, ezagutzen ditugun euskaldunek asko produzitzen bait dute! Akaso autoreegiak gara. Ez al zaigu aski gure lan arruntekin? Ez nonbait. Gure hizkuntzak izango al du errua? Seguraski. Estanko batean lan egiten zuen tipo bat ezagutu nuen aspaldian. Tipo benetan arrunta zen. Bere lana egin eta ez zuen inongo beste anbiziorik. Urteetan bere sormen lan bakarra, zegokion belarrimotxetasun ilunean, kinielak osatzea izan zen. Eta hortan ere ez zen batera trebea. Euskara ikasi eta dagoeneko irakurri ez ditudan sei eleberririk eta olerki liburu bi argitaratu ditu. Kaletik aurkitzen dudan bakoitzean, bere obraz aipamen txikiarekin egitea ezinezkoa zaidanez, beti lotsatzen naiz. Administrazioa euskaldundu behar dela entzuten dut eta larritzen naiz. Hiru mila pertsona dira. Zertarako behar ditugu hainbeste eleberrigile eta olerkari?.

herri aldizkariak

Asier Azpilikueta

Eskolara autobusez

Ttipi-Ttapa aldizkari azken zenbakiak eskola garraioa aztertu du erreportariari eskainitako orrialdeetan, Aitor Arozena kazetariak sinatutako artikuluen bidez. Izan ere, eskualdeko 1.600 ikasle erabiltzen dute egunero autobusa, taxia edo diruz lagundutako autoa, etxetik ikastetxetara joateko. «Gehienek autobusa hartzen dute, ikasketa ertainak egiteko aukeratu duten institutua edo DBHko ikastetxera joateko. Bertze aunitzek, ordea, herrian bertan, beraien auzotik edo baserrietik eskolara joateko autoa behar izaten dute. Etxetik eskolara bi kilometrotik goiti baldin badira, gurasoek

Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza izaten dute beraien autoa erabiltzearen».

«Aniztan, neska-mutikoen bidaiak ez dira ikastetxera ailegatzearrekin bukatzen. Inguruko ikastetxeen arteko harremanak gero eta gehiago lantzen dira eta batetik bertara mugitzea autobusa behar da berrit. Adibidez, astelehenero tailerra izaten da Oronozko eskolan eta Arraioz eta Gartzaindik 21 ikasle mugitzen dira. Asteazkenetan Elizondoko eskolan izaten da tailerra eta Baztango ikastetxe guzietako 90 ikasle egiten dute joan-etorria autobusean. Neska-mutikoen ordu eta kilometro aunitz

ematen dituzte autobusetan, beraz, segurtasun neurriak egoki betetzen dituzten ibilgailuak galdegitea ez da sobera eskatzea».

Autobusek bete beharreko hainbat baldintza aipatzen ditu Arozenak sinatu artikulua, hain zuzen ere: «Autobusak 10 urte baino guttiago izan behar du edo 10 baino gehiago baditu, haurren garraioan beti enpresa berean erabilia izan behar di. Edozein moduz, autobusek ezin dute 18 urtetik goiti izan. Beharrezko paperak eguneran izan behar ditu, noski, eta hainbat ezaugarri tekniko bete».

Nafarroako ardoen sasoia ona

Azken urteetako gorakadari jarraituz, Nafarroako jatorri izeneko ardoek jadanik 1997an baino %14 gehiago saldu da


Nafarroako jatorri izena duen ardoak gero eta harrera onagoa du. Azken urteetan salmentak gora egin dute nabarmen eta aurten gorakada are nabariagoa da. Urtea bukatu gabe, jadanik laz baino %14a gehiago saldu da. Errioxako jatorri izena garestitu izana ez da arrazoi bakarra. Nekazariak zein adituek diote kalitatearen alde azken urteetan egindako ahaleginaren ondorio dela, gehienbat.

Ah ah, ah, ardo gorri naparra!, ezarriko lakarra kentzen duen azkarra; eh, eh, eh ni ardoaren alde...» dio abestiak eta azkenaldian, behintzat, badirudi herrialdeko mahaitskin egindako ardoak gero eta zaletu gehiago dituela. Bost zonaldeetan -Lizarherria, Baldizarbe, Behe Mendialdea, Goi Erribera eta Behe Erribera-banantutako 13.171 ha. dira Nafarroako jatorri izena duten mahasti lurak eta 7.200 mahastigilek lantzen dituzte. Nafarroako jatorri izena gehien- goa eta garrantzitsuena bada ere, Errioxako jatorri izenak ere badu lekua. 4.896 ha. ditu eta 914 nekazari-ku-ku-ku-tzen dute Andosilla, Azagra, Aras, Bargota, Mendavia, Biana, San Adrian eta Sarta- gudaiko herrietan. Dena dela, aurtengo uza oso ona izan badute ere, Nafarroa-ri soilik dagozkion datuak ez dizkigu eman Errioxako Jatorri Izendapene-ko Kontseilu Arautzaleak.

Juan Jesus Cocin
«%40ko izotza izan dugu eta uza eskasagoa izan da. Dena den, oso ongi saldu da: miura mahatsa 45-55 pezetatant, garnatxa 80-85tan, tenpranilloa 95tan eta merlota eta chardonnay 130-140tan»



Ardoak ontzen Piamonte bodegan. ● MIKEL SAIZ



ere, esportazioetan nabaritu da, joan den urteekin konparatuz %17,92a igotzea izan du 34,6 litroko salmentarekin», azpimarratu du. Beltzetan gainera, kalitate hobereak saldu dira gehien. Barruko merkatua mantendu egin den bitartean, erreserba handiakoen esportazioa %478a igo baitira. Gorriek dagokionez, %5,44 igo da salmenta eta kanpoko merkatua da hazkunde gehien izan duena %28rekin. Ardo txuriak ere %9,8 igo dira eta aurrekoek ez bezala batez ere barruko merkatuan saldu da, %17,36, hain zuzen. Datu dantzean aurrean. Itsasok dio etorkizunerako aurreikuspenak «onak» direla.

Mahastigileak pozik
Nafarroako jatorri izendapenek merkatuan tokia hartzen duen heinean, ardo nafarra gero eta hobekiago saltzen dela ikusirik pozik dira nekazariak. Juan Jesus Cocin Erriberriko nekazariak horrela dio, behintzat. Cocinek ditu tenpranillo, merlot, garnacha eta miura mahatsa ematen duten 11 ha mahasti ditu. Erriberriko Piedemonte kooperatibako partaide da beste zazpi mahastizainekin batera, eta mahatsaren bilketa eta zainketa hobegotzeko ere Txibori makinaria kooperatiba osatu zuen, prezioak eta produktio kosteak merkatuzko. Mahatsondoak neguko egonean dauden bitartean, olibak biltzen ari zela harrapatu genuen. Cocinen irudiko «une oso interesgarri» daude. «Ardo txuriaren eta gorriaren kontsumoak behera egin dute baina beltzak gora nabarmenki», dio. «Mahatsaren prezioa %10-20 igo da eta Nafarroako ardoak inguruko merkatuetan sar daitezkeelako Errioxako ardoak igo egin behar duelako 150-250 pezeta botila.Horrela, Nafarroatik kanpo hemengo beltza ezagutzera emateko aukera ona da», gaineratu du. Nekazariaren ustez, gaur egun merkatuan Errioxa zaletasun handia dago. «Iruñean ere eta oso zaila da merkatu horretan sartzea. Hobekiago saltzen ari gara Ingalaterran, Alemanian edo Suedian, Iruñean baino. Egundaditu Nafarroako beltzak kalitatea-prezioa Errioxakoak baino hobegoa dutenak» nabaritu du. Cocin da mahats produktioaren prozesu guztia kontrolatu dezakeen nekazari bakanetakoak, mahatsaren %70 nekazarien kooperatikek produzitzen badute ere, %25 bakarrik banatzen dute. Bere ustez hori da sektorearen duen arazoetako bat, horrela kupelategi handien eskutian baitago beti ardoaren kontrola eta horrek batzuetan prezio aldaketa handia ekar dezake salmantan. «Aurtengo uztan ez da horrelakorik gertatu nahiko orekua izan delako. Batez-beste %40ko izotza izan da

Joaquin Pejenaute Evenako zuzendaria


«Mahasgintzaren etorkizunak upategien garapenarekin uztarturik joan behar du»

Evenako -Nafarroako Mahastizaintza eta Enologia- zuzendaria da Joaquin Pejenaute. Gobernuaren arimoon 1981ean sortua, herrialdeko mahasti eta ardoaren sektorea ikertzea, aztertzea eta aholkatzea da bere lana. Era berean, mahastizainen eta ardandegi-jabeen zerbitzura dago. Pejenautearen irudiko, ardo nafarrak etorkizun ona du.

■ Europako Batasunak 3.600 Hekt. berri eman dizkio Espainiari. Horiestatik Nafarroari zenbat dagozkion jakiteko bilera izan zenuten berriki Madrilan. Batzordearen araudiaren arabera Espainiari 3615 Hekt. eman zaitziko landaketa berriak egiteko 1998-99 eta 1999-2000 kampanietan. Dena den, araudiak ez die lur berririk eskainiko azken hiru kampanietan mahastiak uzteko diru-laguntzak jaso dituztenel, ez eta epe horretako kampane-

tan distilatutako kantitateak produktio osoaren %10 gainditu duen eskualdeetan. Murritzeta horiek direla eta. Nekazari-za Ministerioak bilera egin zuen autonomia guztiekin. Ez zen akordioa lortu mahastia duen Espainiako eskualde guztiak murritzeta horietan sartuak daudelako. Nafarroako Gobernuak eskatu ditu landaketa berriak duela 10-12 urte hasi zen mahastigintzaren eta ardogintzaren zabaldukunderekin jarraitzeko. Gobernu Zentralak banaketa gelditu egin du eta dudu-mudatan dago zein eskualdeei eman batzuen onura bestean kalte izan ez dadin.
■ Ardoaren Merkatuaren Antolakuntza Bateratuaren (O.C.M) proposamena ezagutu da eta 1999an onartu daiteke. Zein aurreikuspen ditu Gobernuak? Mahastigintza eta ardogintzaren sektorea laguntzen jarraituko dugu kalitatearen eta errentagarritasunaren alde.
■ Azken urteetan Evenak sektorea bultzatzeko egina handiak egin ditu. Zertan gauzatu dira? Mahasti bideragarriagoak egiten sailatu gara. Landaketa gazteak egin eta mahastiak berriki egin ditugu, mahats garnatzarentzako (Cabernet Sauvignon, Merlot, Tempranillo eta Chardonnay) aldaerak sartu ditugu eta prozesua mekanizatu egin da, besteak beste. Gainera, upategi berriak sortu ditugu eta zudeenak hobetu. Upategiak dira


mahatsa eraldatzeko motoreak, Mahastigintzaren aurrerapenak etorkizun zaila du upategien garapenarekin uztarturik ez bada.
■ Ardo nafarrak azken boladan harrera oso ona izan du. Ziur naiz kalitateagatik dela. Merkatuan upategi gehiago izateak ere badu eragina. Gainera, azken urteetan ardo gorri, zuri zein beltzen eskaintza zabaldu egin da.
■ Beraz, etorkizuna badute ardo nafarrek? Ez dut triunfalista eta ahoberoa izan nahi, baina egia da egin dena garrantzitsu dela. Lorpenak izan dira baina oraindik asko dago egiteko. Uste dut guztiok elkarturik gure mahastiak hobetuz bagoaz, eta mahatsen goreneko kalitatea zein ardoarena lortzen baditugu, Nafarroako ardoaren eta mahastiaren etorkizuna ona izan daitekeela.



→ Irene Arrizurieta

tatearen aldeko gero eta apostu handiagoa jatorri izendapen guztietan gertatzen ari omen da, baina, batez ere, Nafarroan. «Evenaren lana ezinbestekoa izan da bai mahastietan eta baita upategietan. Mahastietan mahats motak hobetu dira eta teknikoek jarraipen bat egiten die abuztuan eta irailean kalitate onak etxeratzen. Era berean, upategietako prozesua, hotza gordetzeko makinak, hartidura kontrolatua eta beste hobekuntza batzuekin kalitatea asko hobetu da».

NAFARROAKO ARDO PRODUKZIOA



Nafarroako Jatorri izendapeneko ardoaren salmenta		
1997	38.130.000 l.	
1998	42.943.300 l.	↑%14,05

A. PENALBA

badoaz ere, mahatsondo berriak jartzeko aukera latza da. Europak mahatsondo landaketen mugaketa ezarria du. Landaketa berriak egiteko 10.000 ha adostu ditu Europako Batzordeak, eta, horietatik 3.600 ha Espainiarentzako izanen dira. Afera da ha horiek zein elkarte autonomo eman zaitzkeen. Nafarroako Gobernuak izan du lehen bilera Madrilekin. Han izan zen Joaquin Pejenaute, Evenako zuzendaria eta Madril banaketa egitera ez dela ausartzen dio. Lur horiek ez lirake beharrezkoak aurretik mahastiak kentzeagatik dirurik jaso izan ez balitz. «Jatorri izendapen bakoitzari %1 ahalmena eman nahi zaio. Faltan sumatzen da dirulaguntzekin kendu ziren hainbat errege-ur. Egundaketa eskubi- deak ordaintzen ari dira, horiek ez balira lehenagotik kobratu sustraitez ateratuko mahastiengatik egun izanen genituzke eskubide nahiko Nafarroan landaketa berriak egiteko», dio gibel Cocinek.

Erriberriko nekazariaren aburuz zonaldean etorkizuna duen laborantza bakarra mahastia da. «Zitua beheraka doa. Agenda 2000rekin prezioen beherakada handia izanen da, eta aukera interesgarria mahastietan dago eta txikiagoak diren produktio biologikoetan. Inguruetan ezarzagot sal daitezkeen produktuan, finean. Aurtuz egin behar dugu Nafarroako Gobernuak, Madril-ekin zein Bruselarekin dituzten nekazaritza lehiaketatik aldendu behar dugu», azpimarratu du kezkati.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Tuterako bertsolari judutarra: Yehudah-Levi

Ez da lehenbiziko aldia tuterar xaloa EGUNKARIAREN orriotan agertzen dela. Ia orain dela urtebete, aurtengo urtarrilaren 31an hain zuzen, Garikoitz Berasaluzek maisuki lematzen duen «Liluratura» sailean gure gizonaz mintzo zitzaigun oparo, Joxemari Iturraldearen iritziz interesatu eta interesgarria ere eskeini zigula. Bigarren honek 1987.ean ateratako Susa aldizkariaren 21. zenbakian gure poetarik onenatzat aurkeztu zigun hartan zeharo ezezaguna zirauen



Uteran, berreskuraturiko plaza eder bati izena ematen badien arren, hormetan bertso ederrak eta guzti azulejoetan paraturik -Una gacela lava sus vestidos con el agua de mis lágrimas, y luego los tiende a secar al sol de su belleza: en verdad, no necesita el agua de las fuentes si dispone de mis ojos, ni los rayos del sol si cuenta con la belleza de su rostro-, izena baizik ez da ezaguna egiten herritarren artean, nahiz eta goren graduako organismo anpuuloek gora handiko ihardunaldi judutarrak urtero antolatu. Bestalde ere, ha-Levitz ezagutu izan diren berriak ez dira behar beste, urri eta soil. Ikertzaileen artean soilik izan bazen ere, interes haundiko igaro zitzaigun Yehudahz gainekorik jakin ahal izatea, nahikoa berandu arte, fidatzeko gutxi finkatu ez arren. Bada, mende honen erdialdean Haym Schirmann eta Goitein ikertzaileek gai hebraikoetan espezializatua den Tarbiz aldizkarian haiten tesiak plaza-ratu ez zituzteno, kontuzahar, poesia zein alegietan oinarrituriko biografia eskasa izan baita tradizioak iraunarazi diguna.

Gaur egun ziurtasun osoz Yehudah Abu-l-Hasan ben Semu'el ha-Levi Tuteran sortu zela -eta ez Toledon luzaro uste izan den moduan-, eta ez 1075. urtea baino beranduago, esan daiteke. Orduan, Erriberako hiria Ahmed al-Muqtadir izeneko Banu-Hudutarrak gobernatzen zuten. Gazterik-gazte elki zen hegoaldera buruz, eta han, judutar ilustratuen bilkuretan sarturik, bat-bateko bertsoak eta poesiak sortzeko zuen dohai aparta erakutsirik, Moseh ibn Ezra poeta ezagunak gonbidaturik

Granadara iritsi zen. Almorabidek Granada 1090.ean konkistatu ostean, Lucenan izan zen ikasle bertako Yishaq Alfasi rabiren yesibah-n 1103. urte inguruan. XI. mende bukaeran kristauek Al-Andalusen oldartu erasoek judutarren aurka sortaraziko zuten giroa zela eta, Toledon geratu zen mediku, non dirutza ederra egin bide zuen. Oraino Andaluziara arraitzuli zen, Kordobara hain zuzen, baina harzara ere, penintsulako hegoaldean Gaztelako Alfontso VII.ak eta Nafarroa-Aragoiko Alfontso I. Burrukatzaileak tenkatu taigabe-

ko enbatak zirela eta, Palestinanantz joan zen 1140. urte inguruan. Kairora iritsi zen le-



henbiziz, eta gero Alexandriara. Nahiz horretarako arrazoiak ezagunak ez diren, Yehudah luzaro izan zen Egipton, eta hantxe zendu zen 1141.ean, Palestinara iritsi zenezt ezagutzen ez dela.


Bi ziren, oro har, ha-Levik eginiko lanak. Alde batetik hebraieraz zein arabieraz izkiriaturiko olerki profanoa egin zuten -Luzattok Pragan 1840.ean agertu bere Betulat

bat Yehudah lan klasikoaren arabera 827 poema ondu zituen gure tuterarrak-, arabierara bai gaia eta bai poetika den bezanbanean, alabaina, betiere judutar tradizioaren ikutua eta Bibliari aipamen zuzena iger daitekela. Arabieraz ere Kuzari edo Jazarren liburua lan apoletikoa ondu zuen. Hone-tan, arabiarren porrota iragar-tzen zuen, judutarren garaipenarekin batera. Benetako izenburua zuen Ezetzaren eta frogaren liburua: zapuztutako erlijioaz arabieraz egin izan arren, Yehudah ibn Tibbónnek hebraierara eginiko itzulpena da bere garaian zabaldu zena, baita Europako gainontzeko hizkuntzetara iraultzeko erabili zena ere. Idazkian, Errusiako hegoaldean zegoen jazartarren erregeak, beronentzat zein bere herriarentzat erlijioa aukeratzeko saiorearen berri eman zigun; filosofari, kristau, musulmana eta judutarrari galdetu ostean, naski, judutarren erlijioa izan zen hobetsi zuena. Ha-Levi judutarra zen, alta juduzale; hebraieraren herria beste herri guztien gainetik zegoelako uste fierra bazuen. Talmud ikasi eta rabi maila erdietsirik, mesiasen etorrera noiz zatekeen kalkulatzeko aha-legindu zen, baina zehaztu datetan mesias iristen ez zenez, Lur Santuetara joateko deliberratu zuen, gorago ikusi legez.

Gaztelaz ere ezer gutxi idatzi zuen, hain zuzen ere, ezagutzen diren bertso-lerro zaharretarikoak, hots, Gaztelako Alfontso VI. erregearen medikua eta kontseilaria zen Cidello zenaren omenezko jartxa; genero hau Muccáden ben Muafa olerkari arabiarrek sortu zuen 912.ean urtean, eta moaxaja bertso-moldearentzako lelo mozarabiarrak dira zehazki.

etorri ahalean

Patziku Perurena



Eliz inguruko istiluak

Corpus egunean, alardeak, dantzak, komediak osatzen zuten festakizuna, eta erri-tual modura, eliz barruan egiten ziren, 1598an leitzarrei debekatu zien arte: «Que el día del Santo Sacramento, ni otras festividades no se entre a disparar escopetas dentro de la iglesia por el daño que hacen y la indecencia, y que no entren enmascarados dentro de la iglesia ni disfrazados, pena de excomunion mayor y los eviten de los santos oficios». Baina juxtu larehun urte igaro arren, elizatik tiroak aditzen dira oraindik Leitzan Corpus egunean.

Orain ezkontzakoan arroza botatzeko ohitura da, garai batean ordea intxaurrak, 1742an Ultzama alderako egintzen denez: «por quanto estamos informados de abusos e irreverencias que se hacen en los templos y sus zemeterios en este Valle con ocasion de meceatas y vodas, mandamos, que las mugeres ni otra persona alguna no suban al coro a tirar nueces ni otras cosas con motivo de vodas u otras funciones».

Mezetaz hitza azaldu da hor. Inazio Baleztenak honela azaldu zuen esaiara: «La palabra meceatas con la que se conoce en Navarra las Feistas que se celebran en honor de los Santos Patronos, no aparece en los diccionarios de la lengua castellana ni en los vascongados de Aizkibel ni de Azkue. Hay quienes sostienen que hay que ir a buscar lo en la voz híbrida latino-vasca meza (misa) y el sufijo abundancial «eta» con el significado de «abundancia de misas», con motivo de estas fiestas acudian al pueblo multitud de gentes de todos los pueblos de la comarca, no faltando los curas y con este motivo se celebraban mas misas que de ordinario».

Aurreko pasarteaz azaldu den beste hitzak, zemeterio delakoak, ez pentsa egungo «cementerio» esan nahi duenik, «eliz ataria» baizik. Lehen hilak eliz

inguran lurperatzen ziren, eta batez ere, eliz aurrean, horregatik deitzen zaio toki askotan oraindik eliz atariari 'zimitirtoa' euskaraz, (grezierako koimete-rion etik etorria); baina XV. mendetik hasi ziren famili aberratzenak beren senideak eliz barranean lurperatzen, eta Trentoko kontzilioz geroztik denak eliz barranean lurperatu ziren. Gero, 1834ko lege batek, debekatu egin zituen eliz barruko enterramentuak, higiene kontuagatik, eta orduz geroztik sortu ziren egungo Kanposantu berriak.

Apaizak, beste zeregin haundirik ezean, beti izan dute bizio-so fama: besteak beste, jale, edale eta fumatzaille amorratuak. Honatz tabakoaz 1647an Goizuetan hartutako neurriak: «que ninguna persona, de qualquier estado que sea, tome tabaco de humo, de hoja ni de polvo dentro de la iglesia, ni en la sacristia, ni los sacerdotes medio hora antes ni media hora despues de celebrar». Ordurako «maria» erretzen edo «atxis» egiten bazekiten beraz Goizuetako apaizek. Zoaz orain! Nola kanbiatzen diren gauzak! Edo zeinen inoxenteak diren moderno ustekook!

Gure baladarik zaharretakoak, Alostorre eta gisakoak, ditugu euskal emakume erostarien lekuko, erdaraz 'plañideras' deituak, eta beren senar edo hildako senideen gorantzan heriolantu tristeak koplazten zituzten. Honatz 1540an gotzaiak Elizondokoel eskatu ziena: «no devian consentir que dentro de la iglesia las mujeres den voces y hagan llantos ni canten cantares llorando, so pena de que las echen de la iglesia».

Eta lantua isiltzeko 'apezardoa'. Bere kargua hartzen zutenen, apaiza batek bere parrokiario guzietan ematen zuten otorduari (normalean, gazta ogia ta ardoa) deitzen zitzaion «apezardoa» baina euskal hiztegiak ez dakarte, behar bada, gure apez bizioren nabariena ardoa izan delako, eta apezak euskal hiztegiak.

Ziria

• Motxorrosolo •

Berriak gara

HERRITARRENGANDIK HURBIL, NAGUSIKI GAZTELERAZ IZANIK ERE, bertzelako komunikabidea. Anitzen sostenguaz abiatuko dena. Bakar batek gaztigatua zuen, garai berrietara egokituriko proiektua duzue, alde enpresarialetik egokitua ere. Egoera, presioa, nahi haina arrazoi aipatuta ere, LBE baten plegu guzian jabea.

Iker Flores  Txirrindularia

«Kategoriari beldurra ez baino errespetu handia diot»

Iker Flores txirrindularen pedalei ekiteko afizioa familiatik datorkio. Igor anaiaren arrimoan hasi zen zazpi urte zituela Sakanako Txirrindulari Taldean. Egun profesionaletan eta etxekoekin aritzeko aukera eman dio Euskaltel- Euskadi taldeak Egin duen jauziari beldurra ez baino errespetua diola aitortu du.



● MIKEL SAIZ

GAZTETASUNAK EMATEN DUEN ausardiarekin ekiten dio goizero entrenamenduari Ikerrek. Lanerako prest hartu gintuen. Txirrindularen gainean bezala, urduri eta azkar mintzo zen, denborak ihes egiteko beldur edo. Ondoren, haren gainean alde egin zuen.

■ **Joan den urrian Euskaltel-Euskadi taldearekin fitxatu zenuen. Nola sumatzen duzu denboraldia?**

Oso zaila. Denok badakigu profesionaletan aritzea oso zaila dela. Lehenengo urtean ez dut presiorik eta hori oso garrantzitsua da. Bi urteko kontratua dut lanean aritzeko eta neurria hartzeko.

■ **Debuta otsailaren 7an Palmako Challenge frogan duzu. Hasteko gogoz zabilta?**

Ez dakit zenbat egunetan korrituko dudana eta haren jarraian Andaluziako Itzulia dut. Ez dut atsedenaldirako denborarik eta ikusiko dut zer moduz aritzen naizen.

■ **Prest zaude afizionatuetatik profesionaletara egin duzun jauzirako?**

Baitz uste dut. Anaiak esaten dit lasai egoteko eta urduri ez jartzeko, hori baita txarrena. Kategoriari beldurra ez baino errespetu handia diot. Badakigu hor gogor ibili behar dela.

■ **Anaiarekin batera ibiliko zara Euskaltel-Euskadin, irakasle ona duzu?**

Bai. Anaiarengatik, beste batzuk ahaztu gabe ere, nago hemen. Eskerrak eman behar

dizkiot, txikitatik izan dudalako irakasle eta gidari. Lau garren urtea du profesionaletan eta badaki nola jokatu behar den.

■ **Bihar Sakanako kirolari hoberearen saria jasoko duzu. Joan den astean afizionatu hoberearena. Hainbeste sarik ez zaituzte beldurtu?**

Ez. Sariak jasotzea oso pozgarria da. Hor ikusten da zure urte guztiko lana eta amaieran irabazi duzula ikustea oso garrantzitsua da.

■ **Adituek diote mendian ongi zabilzala eta txirrindulari nahiko konpletua zarela. Nola definituko zenuke zure burua?**

Mendian oso ondo moldatzen naiz eta erlojuaren aurka asko hobetu dut. Nahiko konpletua naizela esan daiteke.

■ **Zein da zure ezagarririk hobereana?**

Karrerari ez diet beldur. Txirrindulari bizia eta oso urduria naiz eta hori dut alde.

■ **Eta txarrena?**

Hori bera, oso urduri jartzen naizela. Izan behar dut norbait atzetik gidari, egin hori eta bestea ez esaten ari zaidana.

■ **Zuk afizionatuetatik profesionaletarako pausoa eman duzu. Nolako maila da Nafarroakoa?**

Egun muga hori pasatzea oso zaila da. Dena den, Nafarroan txirrindularitza ondo dagoela esan daiteke. Zortzi profesional gaude eta beste kategorietan ondo dabilen jende mordo

dago. Profesional gehiago aterako diren esperantza badut.

■ **Horrek esan nahi du etorkizunean beste txapeldun bat izanen dugula?**

Ez dakit. Oso zaila da. Afizionatuetan oso ongi ibili naiz baina, orain, profesionaletan ezberdina da. Afizionatuetan garaipenak lortzen dituzu baina profesionaletan ez zara aurrean ibiltzen. Lasai joan nahi dut, eta gero ikusiko da ongi edo txarki gabiltzan.

■ **Norbait Indurainen lekuko hartuko du?**

Ezetz uste dut. Oso zaila da. Mikelek egin duena kasik ezinezkoa da.

■ **Aurten, zoritxarrez, txirrindularitza dopping-a izan da protagonista. Txirrindulari askok diote dopping-a ohi-koa dela karreretan, zuk bizi izan duzu hori?**

Ez, nik telebistan ikusi dudana besterik ez dakit. Esageratu egin dutela uste dut eta errealtatea ez da horrelakoa. Drogadiktoen antzera tratatu gaituzte eta hori larria da.

■ **Lau urtetan hamabost froga irabazi dituzu. Aurten zerbait irabazteko itxaropena baduzu?**

Ez. Oso zaila da profesionaletan karreraren bat irabaztea. Oraindik ez dut karrera bat bera

sosiaia

Afizionatuetan Nekazal Kutxarekin lau urte ibili eta gero, profesionaletara pasatu berri da Iker Flores 22 urte urdiandarra. Datozen bi urteetan Euskaltel-Euskadi taldean ariko da. Ez da bakarrik egonen Igor anai ere talde berean izanen baitu, «erakusteko eta laguntzeko». Jesus Losa medikuaren gidaritzapean, egunero 150 kilometro inguru egiten ditu Igorrek batera eta astean hirutan Arbizuko gimnasiara joaten da.

Egunaren ordu gehienak gurpilaren eritmoan igarotzen baditu ere, egiten du besterik gazteak. Ez dela gau-txorria dio, eta ateratzen den gutxia «haizeak hartzeko» omen da Gehiegi ez bada ere, lagunekin eta andregaiarekin egin ohi du. Txirrindularitza ez ezik, frontenisean, eta igeriketan ere aritzea gustoko du.

Altsasun Lanbide Heziketa ikasi ondotik, Iruñean bi urteko Soldadura ikastaroa egin zuen. Hori guzti hori baztertu du txirrindularitza aritzeko. Hasi besterik ez bada egin ere, kirolaren ingurunea gustoko duenez, gerora, masajista edo mekaniko lanetan ari nahiko luke gerora. «Dena den, orain txirrindularitza ari naiz eta ez dut horretan pentsatzen», bukatu du.

ere korritu profesionaletan eta ez dakit nola ibiliko naizen. Pixkanaka-pixkanaka ikusiko dut zein etorkizun dudana. Profesionalen hobereenak bakarrik irabazten dute eta lehenengo urtean zerbait irabaztea nire bizitzako garaipenik hobereana litzateke. Oso zaila da. Helburua irabaztea ez baizik ondo ibiltzea da. Aurreko urteetan hobekien maiatzean egon izan naiz. Dena den, saiatuko naiz lehenengo karreretan ere ongi ibiltzen.

■ **Beraz, froga handieren batean aritzea -Frantziako Tourra kasu- ezinezkoa da?**

Tourra froga handiena da eta taldearentzako ere oso zaila da izango da hara ailegatzea. Taldea joango balitz oso ona eta garrantzitsua litzateke, baina ni ez nintzateke joango. Porvenirreko Itzulira joatea gustatuko litzaidake, baina postua irabazi egin behar da.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Leliza:** Latzen, Koma, Anarko eta S.A. taldeen kontzertua izanen da biha, 22:00etan, frontoian. Sarreak aurretik erosiz gero 1.300 balio du, bertan hartuz gero, herriz, 1.600 pezeta.
- **Iruñea:** Oskorrik eta Kukubiltxok *Mari Jane kantazan* emanaldia eskainiko du bihar Gayarre Antzokian, 10:30etan eta 12:30etan.
- **Iruñea:** Cotton Club tabernan kontzertua eskainiko du Escarabajos taldeak gaur, 23:00etan.
- **Iruñea:** Athenaeum Enesco Laukoteak Haydn, Dvorak, eta Beethovenen obrak joko ditu gaur, Gayarre Antzokian, 19:45etan. Bihar, berriz, Iruñeko Orfeoia joko du toki berean 20:00etan.
- **Donapauze:** Hechos contra el decoro taldeak kontzertua eskainiko du bihar zortzi, frontoian, 24:00etan.
- **Barañain:** Iñaki Saldovalen piano emanaldia eskainiko du datorren larunbatean, 20:30etan, Santa Maria elizan.
- **Uztarroze:** Ruper Ordorikak kontzertua eskainiko du etzi zortzi, elizan, 20:30etan.

ERAKUSKETAK

- **Lizarrak:** Alfredo Diaz de Cerioren 'Visiones del paisaje navarro' margo erakusketa ikusteko aukera dago gaurtik heldu den ilbeltzaren 31a arte.
- **Iruñea:** Juan Carlos Pika-bea Zubiriren margo erakusketa zabalik da Planetarioan.
- **Tafalla:** Kultur Etxean herriko argazki zaharren erakusketa ikus daiteke hila-ren bukaera arte.

ANTZERKIA

- **Burgi:** Trokolo antzerki taldeak *Zalapartaka* lana aurkeztuko du bihar zortzi, 18:00etan, udal aretoan.
- **Iruñea:** Moma Teatrek *Umbral* antzezlan eskainiko du etzi, 20:00etan, Nafarroako Antzerki Eskolan.
- **Zizur Nagusia:** AZ Produccionenek *Gayarre, una velada musical* lana eskainiko du gaur, 20:00etan, Kultur Etxean. Sarreak 600 pezeta balio du.

BESTELAKOAK

- **Etxarri-Aranatz:** Udaletxeak Lizarra-Garaziko akordioa sinatu zutenekin mahainguria antolatuko du gaur, 21:30etan, Kultur Etxean.
- **Iruñea:** Mexiko mendiko txi-

rrindulan. Mendebaldeko Ama Lurraren zeharkaldia' diapositiba emanaldia pantailaratuko du Eneko Gastigarrak, gaur, 20:15etan Plane-tarioan.

► **Lizarrak:** Jose Carlos Mainer

eta Miguel Sanchez Ostizek *El imperio del gato azul* liburua aurkeztuko dute gaur, 20:00etan, Gustavo de Maeztu museoan.

► **Iruñea:** Xabier Ikobaltzeta antropologoak 'Marijeriak,

Olentzero eta kandalaria. Recreación de la identidad vasca en contextos urbanos' hitzaldia eskainiko du gaur, 7:30etan, Navarrería Kultur Zentroan.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

BIAK DIRA JOKOAK. BATA BIRIBILA, JOAN-ETORRIKOA. BESTEA ZUZENA, ZERURAINOKOA. LEHENA GURE HERRIKOA DA. BESTEA EZ DAKIGU NONGOA.



KASU EGIN NON BOTATZEN DUZUN HARRIA.

AGUR

Oharra

Eguberri jaiak direla-eta, Nafarkariaren hurrengo alea abenduaren 31ean, osteguna, argitaratuko da.